

2020 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

MEMORIA

1 Prozedura

2020ko aurrekontu proiektuaren prozesua 2019ko ekainean hasi zen, berau egiteko egutegia finkatuz. Egutegi hori finkatzerako garaian kontuan hartu dira, besteak beste, legediak eskatzen dituen pausoak, auzotarrekin egindako bileren egutegia, udal korporazioko beste talde politikoaren parte hartzea eta Aldundiko funtsa zehazteko dagoen egutegia.

2019ko irailean sailetatik lehenengo proposamenak jaso ziren 2020an izango diren beharrak aztertuz. Auzo batzarretako eskaerekin batera aurrekontuen lehenengo zirriborroa osatu da.

Urtero bezala aurrekontuen zirriborroa auzo guztietan aurkeztu da. Horrez gain, aurrekontuen inguruko eskaerak jaso dira. Gehienak auzoetako lanen inguruan txertatu beharrekoak, baita herriko zerbitzuen ingurukoak ere. Guztira 124 herritar bertaratu dira bilera horietara, erdiak emakumezkoak eta beste erdiak gizonezkoak. Horietatik 15, 30 urtez azpikoak izan dira. Hala ere, aurreko bi urteetan bezala, gazteria saileko gazte batzarra antolatu da, zehazki sail horretako ekintzak zertara bideratu erabakitzeke.

Lehenengo zirriborroa osatuta, Ogasun Batzordean aurkeztu zen eta oposizioko alderdiari ekarpenak egiteko aukera eman zitzaion.

Urrian, lehenengo zirriborroa oinarri hartuta, sailetatik bigarren doiketa bat egin zaio aurrekontuari, oposizioko alderdiaren eskaerak jaso eta txertatzen saiatuz. Azaroan, bigarren proposamena Ogasun Batzordean aurkeztu da.

Azaroko bigarren hamabostaldian hirugarren eta behin betiko aurrekontu proposamena batzordean eta Osoko Bilkuran onartu dira, azken zalantzak argituta.

Prozedura hau jarraitu ondoren jasotako emaitza da 2020ko aurrekontua.

2 Aurrekontuarekin bete nahi diren helburuak

Aurrekontuen helburu orokorrak honakoak dira:

- Udalak herritarrei zor dizkion zerbitzuak bermatzea.
- Herriko azpiegitura eta ekipamenduak sortu nahiz hobetzeko inbertsioak bermatzea.
- Herritar eta eragileen dinamizazioa bultzatzea.

Guzti hori egiteko printzipio orokor gisa erabiltzen dira ekintzen guztietan eraginkortasuna, efikazia, jasangarritasuna, programen optimizazioa, gardentasuna, proportzionaltasuna eta genero ikuspegia txertatzea.

2020 urtea baino lehen, udal aurrekontuetan bereziki nabarmendu dira auzoetako hutsune nagusiak asetzeko proiektuak. Azken lau urtetan helburua auzoetako hutsuneak identifikatu eta horiek konpontzeko proiektuak aurrera ateratzea izan da, bereziki, hoditeria, argiteria, errepide, oinezkoen bide eta beste oinarritzko azpiegiturak egin eta berrituz. Horren adibide dira Karrikako bidegorria, auzoetako espaloien berritzea, Bidegorriko argiteria berritzea, Ugaldetxoko zubia edo Arraguako igogailua.

2020 urteari begira ordea, aurrekontuetan proiektu ugari biltzen diren arren, helburu nagusi bat nabarmentzen da: Mendiburu 14 eraikinaren lanak hastea. Aurreko urtetan proiektu hau gauzatzeko pausoak eman diren arren, esleipena 2019 bukaeran zehaztu eta lanak hasiko dira. Ondorioz, 2020ko aurrekontuan proiektu hau hasteko inbertsioetako partida garrantzitsua gorde behar izan da. Honek beste inbertsioak egiteko ahalmena mugatu du.

Jarraian, sailez sail aurrekontuen azalpena egingo da.

2.1 Zerbitzu orokorrak

Zerbitzu orokorren zat aurrekontua 3.672.528,31 €-koa izango da, %1,7 handituko delarik.

Sail honetan, 2019arekiko aldaketa nabarmenena zinegotzi kopuruaren aldaketa izango da. 2019-2023 legegintzaldian 13 zinegotzitik 17ra pasatzen denez udal korporazioa, alderdiek jasotzen dituzten ekarpenak eta beraien liberatuen soldaten kostua igo egiten da.

Aurretik aipatu den moduan, 2019 bukaeran Mendiburu 14ko eraikinaren lanak martxan jarriko dira. Esleipena egin ahal izateko urtez urteko finantzazio programa martxan jarri da eta 2020ko aurrekontuei 1.500.000 € gordetzea egokituko zaie lan hauek egin ahal izateko. Udal eraikin honetaz gain, 100.000 €-ko partida ere gordeko da beste udal eraikinen mantenu eta hobekuntza lanak egiteko.

Azkenik, Zerbitzu Orokoren baitan udaleko Informatika Sailaren funtzionamendu gastuak ere kontuan hartzen dira. 353.316,65 €-ko kostua izango du sail honek guztira, soldatez gain, informatikako mantenu orokorra (10.000 €), lizentzia eta garapen informatikoak (180.000 €) eta udal zuntz sarearen zabalpena (10.000 €) egingo direlarik.

2.2 Ekonomia, Ogasuna eta Ondarea

Sail honen urteko aurrekontua 823.789,22 €-koa, aurreko urtearekiko %29,47 jaitsiko delarik.

Jaitsiera nabarmena udalak ordaintzen dituen maileguen amortizazio eta interesetan dago, 2019an baino 200.000 € gutxiago izango direlako.

2.3 Hirigintza

Hirigintzari dagokionean, 2020an 995.635,09 €-ko aurrekontua izango du.

Etxe hutsen alokairua sustatzeko udalak martxan duen programarako 42.452,87 € bideratuko dira, herrian dauden etxe hutsak Etxebiderekin eta etxe jabeekin elkarlanean Oiartzuarren eskura baldintza duinetan bideratzeko.

Honez gain, inbertsioetarako bi partida nagusi aurreikusten dira: auzoetako lanak egiteko 100.000 € eta poligonoen biziberritzarako 150.000 €. 2020ko aurrekontu partehartzaileen barnean, auzoetako inbertsioak auzotarrekin zehaztu dira. Bilera hauetan, auzoetan dauden beharrak identifikatu eta lehentasunak zehaztu dira. Auzoetako lan ugari aurreko urtetan egin diren arren, auzo batzarretan hobekuntza proposamenak jaso dira eta horiei aurre egiteko partida gorde da. Poligonoen biziberritzeari dagokionean, Lintziringo eredia jarraituz, Oiartzungo beste poligonoen egoera hobetu eta enpresak erakartzeko ahalegina egin nahi da.

Azkenik, 60.000 € gordeko dira hirigintza proiektuak egin eta esleipenerako prest uzteko.

2.4 Babes zibila eta herritarren segurtasuna

Sail honek 2020an 1.075.011,02 €-ko aurrekontua izango du.

Legedi ezberdinetara egokitzeko, udaltzaingoan 4 lanpostu finko bihurtzeko prozesua martxan jarriko da. Horrek zerbitzuaren garestitzea ekarriko du, soldata, material eta dietetan guztira aurrekontua % 10 igoko delarik.

2.5 Zerbitzu publikoak

2020an zerbitzu publikoak mantentzeko 4.067.777,31 € aurreikusten dira.

Jarraian, aldaketa nagusiak aipatuko dira:

- Aparkalekuak: 10.000 € gorde dira herriko aparkalekuen inguruko lanketa eta lanak egiteko, bereziki karabanen arazoari irtenbide bat bilatzeko.
- Txakur parkeak: auzo batzarretan jaso den eskaeretako bat txakur kaken inguruko lanketa egitea izan da. Bizikidetzaren arazo honi aurre egiteko 25.000 € gordeko dira, herriko eremu ezberdinetan txakur parkeak sortzeko.
- Mantenketa brigada: 15.000 € aurreikusten dira ibilgailu baten erosketarako.
- Ur zerbitzua: 55.000 €-ko partida gorde da kontadoreak aldatzeko.
- Fatxada garbiketak: partida honetan 9.000 € gehiago jarriko dira, 10.000 € arte, fatxada garbiketen zerbitzua hobetzeko. Garbiketaz gain, konponketa eta pintaketak egiten dituen zerbitzua kontratatu nahi da.

Hauez gain, ohiko beste lanak egiteko partidak aurreikusten dira, besteak beste, asfaltatze lanak, espaloiak eta argiteria publikoa berritzea.

2.6 Hezkuntza

Herriko ikastetxeen ekintzak laguntzeko 1.567.319,30 € izango dira 2020 urtean. Bertan aurreikusten dira Elizalde Herri Eskolako eraikinen mantenua, Partzuergoaren ekarpena eta Haurtzaro Ikastolari dirulaguntza.

Gainera, 15.000 € gordeko dira ikastetxeen eskolaz kanpoko ekintzak diruz laguntzeko.

2.7 Euskara

Euskara Sailak 486.784,00 €-ko aurrekontua izango du 2020an.

Sail hau estrategikotzat ulertzen dugunez, Euskara Bizi Berritze Plan Nagusia (EBPN) gauzaten joan dadin ahal den neurrian baliabideak jarriko dira. Besteak beste, lehenetsuna Udaleko euskararen erabilera normalizatzeko planak, ahozkotasanak (oiartzuera sustatzea) eta etorri berrien hizkuntza harrerak izango du. Bestalde, 2017 urtean arlo sozioekonomikoa (enpresa txiki eta ertainak) gehiago lantzeko eta sakontzeko Lanin egitasmoarekin jarraituko da.

Sail honetako aurrekontuan aldaketa nagusiak honakoak izango dira:

- Euskara ikasteko beketan %100eko doakotasuna bultzatzeko, 8.000 € gehiago jarriko dira, 36.000 € arte. Honen helburua herritarrak oinarritzko euskara mailetako ikastaroak hartzera bultzatzea da.
- Oiartzun Irratiaren dirulaguntza igoko da, bertako jarduera dinamizatu eta komunikabide honen irismena hobetzeko. Guztira 54.700 € jasoko dira.
- Ttur-Ttur elkartearen dirulaguntza % 9 igoko da, 123.225,00 € arte, Euskaraldiko ekintzak aurrera atera ahal izateko.
- A.E.Kren dirulaguntza % 17 jaitsiko da, 2020rako merkatarien talde bakarra aurreikusten delako.

2.8 Kultura

Kultura Sailaren aurrekontua 997.181,27 €-koa izango da.

Antzerkigintzari dagokionean, jarduera hau indartzeko 6.000 € gehiago aurreikusten dira, bai hilabeteroko antzerki eskaintza hobetzeko baita udal antzerki eskolako taldeak finantzatzeko.

Gainera, saileko partida ezberdinen doiketa egin da Xanisteban festen aurrekontua igotzeko, 100.000 €-ra arte.

Azkenik, 6.000 €-ko partida mantenduko da ondarearen inguruko lanketa egiteko.

2.9 Mendiak, ingurumena eta mugikortasuna

Sail honen aurrekontua 755.068,29 €-koa izango da 2020an.

Ohiko diru partidez gain, hauek dira partida aipagarrienak:

- Zarata Maparen lanketa egiteko 6.120 € gordeko dira.
- Xorrola garraio zerbitzua Gipuzkoako Garraio Agintaritzan sartzeagatik, agintaritzari egin beharreko ekarpena aurreikusi da (2.511 €).

- Herri Bideak konpontzeko 40.000 € gordeko dira.
- Aurreko urtetan martxan jarritako proiektuak mantenduko dira. Horien artean dago Lurbizi Egitasmoa, nekazaritza eta abeltzantza proiektua dituztenak eta landa lurren jabeak kontaktuan jartzen dituenak. Horretarako 10.000,00 € gordeko dira. Gainera, Behemendiren ekintzak finantzatzeko 40.000€ gordeko dira.

Ohiko inbertsioez gain, Oarsoaldea Garapen Agentziaren plan energetikoaren baitan ekintzak aurreikusten dira. Horietako bat 50/50 proiektua izango da. Elizalde Herri Eskolari dirulaguntza emango zaio urtean energia elektrikoaren faktura aurrezten duenaren arabera. Bestalde, Agenda 21-ari eta bereziki ikastetxeek gai honetan egiten duten lan eskerdari bultzada bat ematen jarraitzeko beharrezkoak dituzten baliabide ekonomikoak bideratuko dira.

Gauzak horrela, aurreko urteetan bezalaxe, udalaz kanpo baina bere arduraren barne sartzen diren hainbat egituretan parte aktibo izaten jarraituko du, hala nola:

1. **Gipuzkoako parke-etxe sarea:** Gipuzkoako Foru Aldundiak parke-etxe sare bat sortua du eta Udalak proiektu honetan parte hartzen du.
2. **Aiako Harriko Parke Naturala:** Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, behar beharrezkoa dugun kudeaketa partekatu honetan sakontzen jarraitu nahi dugu.
3. **Ondare naturalaren garbiketa lanak:** 2015 – 2019 legegintzaldian larre plana egin zen ganaduzaleekin eta Foru Aldundiarekin batera. Auzolana bultzatu zen. 2020an egitasmo hau mantentzeko partida gordeko da.

2.10 Gizarte politika

Ongizate sailaren aurrekontua 2020rako 1.538.038,52 €-koa izango da.

Politika soziala indartzeari dagokionez, herrian dauden behar ezberdinei erantzuten jarraitzeko aurrekontuak diseinatu dira. Hauek dira sailaren lehentasunak 2020 urterako:

1. Arazo ekonomiko larriak pairatzen ari diren oiartzuar familiei eta herritarrei babesa ematea. Horretarako guztira 235.000€ egongo dira (familiei laguntzatan, haurrei laguntzatan eta larrialdiko laguntzatan).
2. **Etxez etxeko zerbitzua.** Menpekotasunak dituzten herritarren kopurua gora doa. Hau dela eta, Etxez Etxeko zerbitzuaren beharrak ikusita zerbitzua indartzeko erabakia hartu zen 2018an. 2019an aldaketak gauzatu dira eta 2020an zerbitzua zabalduta eta hobetuta mantentzeko aurrekontua egokitu da.
3. **Egitasmo berriei jarraipena eman:** Ereiten proiektuarekin aurrera jarraituko da, gizarte bazterkeria egoeran dauden pertsonen aktibazioa lortzeko. Horretarako, 30.000,00 € bideratuko dira, aurreko urtean baino 10.000 € gehiago.

4. **Petra Lekuona Zaharren egoitza.** Zaharren egoitzaren patronatuarekin zeuden konpromisoak amaituta, partidak egokitu dira. Ondorioz, bertako maileguak ordaintzeko urtero ordaintzen ziren 90.000 €-ko partida kendu da eta gizarte zerbitzuetako beste proiektuetan txertatu da.
5. **Herrigintzako proiektuak babestea:** Aurreko urtetan egin den moduan, herritik sortutako proiektuak laguntzen jarraituko da, batez ere, erakundeekin ditugun hitzarmenen bidez. Besteak beste, Harri Beltza (6.000,00 €), Arraztalo (53.000,00 €), El-Watan (13.000,00 €), Kilirikupe (5.000,00 €), Garabide (4.000,00 €), Agipad (10.000,00 €), Agintzari (27.000,00 €) eta Gazte Izanak (11.000,00 €) lagunduko dira.
6. **Agintzari.** Adingabekoen sozializazioaren eta integrazioaren alde egitea. Horretarako Agintzari Elkartearekin hitzarmena sinatu da eta 40.600 €-ko dirulaguntza bideratuko da.
7. **Jubilatuen egoitza.** 2019 bukaeran Mendiburu 14an dagoen gaur egungo egoitza eraitsi eta berria egiten hasiko da. Ondorioz, eraikin zaharraren gastuak ordaintzeko partidak kendu eta behin-behineko egoitzaren gastuak ordaintzeko 10.000 € gorde dira.

2.11 Berdintasuna

2020an berdintasun politikak bultzatzeko 126.542,09 € izango dira. 2018an saila sortu zen, 2019an martxan jarri eta 2020an bertako lana egonkortu eta berdintasun ikuspegia udal sail ezberdinetan txertatzeko ahalegina egingo da.

Saileko ekintza nagusienak honakoak izango dira:

- Sentiberatze jarduerak egiteko 33.000 € gordeko dira.
- Udalean barne mailako formakuntza saioak egiteko 15.000 € egongo dira.
- Berdintasun plana egin eta bertako ekintzak gauzatzeko 10.000 € aurreikusitako dira.

2.12 Kirola eta Gazteria

Kirol eta Gazteria Sailak 763.075,72 €-ko aurrekontua izango du 2020 urtean.

Kirolari dagokionez, elkarteak babesteko **dirulaguntzak mantenduko** dira. Ohiko funtzionamendu gastuak ordaintzen laguntzeko 54.000 € gorde dira, kirol probak antolatzeko 13.000 € eta norbanako kirolariei laguntzeko 3.000 €. Elkarteekin Kirol kontseiluan adostutako irizpide taularen baitan banatuko dira dirulaguntzak eta beraiekin elkarlanean taula hau egokitzen jarraituko dugu.

Kiroldegia, Madalensoro eta kanpoko igerilekuen mantenurako ere diru partidak gorde dira. Zehazki, azpiegitura hauetan hobekuntzak egiteko 50.000,00 € egongo dira, esleipena duen enpresaren, udalaren eta erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta gastatuko direnak. 25.000,00 €-ko partida berri bat ireki da desfibriladoreak jartzeko.

Gazteriari dagokionez, saileko ekintzak ordaintzeko dagoen partida aurrekontu parte hartzaileen baitan gazteekin egindako bileratik ateratako egitasmoetarako bideratuko da. Egindako proposamenen artean daude, sukaldaritza ikastaroak eta lanaren inguruko formakuntza tailerrak antolatze.

Azkenik, gazteei eskaintzeko martxan jarritako egitasmo berritua, Kuadrillategi izena mantendu duena, Euskara sailarekin batera mantenduko dugu.

2.13 Langileria

Esparru honetan udalaren langileria eman beharreko zerbitzuetara egokitzeko ahalegina egiten jarraituko da 2020an.

Langileen soldatak eguneratzeko aurrekontuaren egokitzapena aurreikusi da 2020rako. Horrela, soldatak KPIaren arabera eguneratzeaz gain, eroste ahalmena berreskuratzeko ahaleginarekin jarraituko da. Ondorioz, 2020an % 2,5eko soldata igoera aurreikusten da aurrekontuetan.

3 Egoera ekonomikoa.

Aurrekontu Orokorra. Udaleko egoera ekonomikoa normala da, ohiko diru-sarrerak (17.502.803,36 €.-) ohiko gastuei (15.084.521,35 €) gainditzen dituztelako, horrela gaindikin hauek inbertsio gastuak finantzatzeko bideratuz.

Estabilitate Lege berriari jarraituz sarreretako lehenengo 7 kapituluak gastuetako 7 kapituluak baino handiagoak dira.

4 Egoera finantzarioa.

Eskueran dauden errekurtsioen jariakortasun eta aldizkotasunak gastuen ordainketa puntuala onartzen du.

5 Orubearen Egoera

Udal ondarea gaur egun indarrean dagoen kontabilitatean, 2009an onartutako Inbentarioari esker eguneratua ikus dezakegu.

6 Laborazio Irizpideak

2019 ekitaldirako egin den Aurrekontu Proiektua 2018 urteko Aurrekontuaren exekuzioan informaziotik abiatuta egina izan da, era berean kontuan izan da etengabeko jarraipenaren betebeharrak, bai legeak ezarrita edo onartu diren betebeharren arabera, dena den, aurreko ekitaldiko etekinen arabera estimatu diren diru-sarrerak edo tarifa eta kuotan igoeraren ondorio bezala.

7 Aurrekontuaren edukia

Ondoren aipatzen dira aurreko Aurrekontua kontuan edukita egin diren aldaketa nagusienak:

1. Gastuaren aldaketa. Jarraitu den irizpidea 2019ko aurrekontuaren exekuziotik abiatu eta K.P.I.-ren igoera ezartzea izan da ohizko gastuarentzat.
2. Dirubidetze gastuei buruz esan daiteke hauek pasa den ekitaldiarekin parean izango direla, OTASaren jarduera arrunta eta Oiartzungo Udal Partzuergoa aurrera eramateko dirulaguntzak izapidetuz.
3. 3. eta 9. kapituluetan. Aurreko urteetan egin diren inbertsioen eragina ikusten da aurreikusten diren gastuetan.

8 Diru-sarreretan aldakuntza

1. 2. eta 3. kapituluko ohiko diru sarreraren igoera zergadun unitate berriak azaldu direlako izan da, zergapide oinarrien igoera, Udalak onartutako akordioetan Ordenantza Zergetako tarifa, tipo edo kuoten igoeragatik. 2. kapituluan, aurreko urteetan moduan, oso behetik jo da krisi ekonomikoak eraikuntza alorrean eragin duen geldialdiagatik, baina 2015ean suspertu egin denez igoera aurreikusi da.

4. kapituluan iazko kopuruekin alderatuz, igoera Foru Fondoaren igoeragatik dator batik bat.

5. kapituluaren kasuan, 2018ko ohiko sarrerekin osatu da.

7. kapitulua Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualderako onartutako diru-laguntzarekin osatu da.

9. kapitulua Udaleko zorpetzearen arabera finkatu da. Aurrekontua estutzen lan handia egin da azken ekitaldietan eta honen ondorioa izan da atal honen jaitsiera 2019 urteari begira udalak ez du mailegurik aurreikusten. Ahal den neurrian zorpetzearen jaitsierarekin jarraitu nahi dugu etorkizunean, beti ere diruzaintza egoera zainduz estutasunik ez pasatzeko.

Oiartzun, 2019ko azaroaren 16a

Alkatea
ALKATEAK,